

## BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5957

*EBAZPENA, 2021eko azaroaren 17koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen 2021eko deialdia ebazten duena.*

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2021eko ekainaren 22ko Ebazpenaren (uztailaren 2ko EHAA, 130. zk.) bidez, 2021. urterako dirulaguntzen deialdia egiten da, memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Ebazpen horren 14. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Bigarrena.– Memoria demokratikoa berreskuratzeko liburu eta dokumentalak egiteko laguntzak ematea II. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2021eko azaroaren 17a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,  
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2021eko azaroaren 24a, asteazkena

## I. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
1	Ikeder	Delegaciones (1936-1980). La representación exterior del Gobierno Vasco	Ez du betetzen ebazpenaren 12-2. artikulua. Eskabidea baino ez dute aurkeztu.
2	837 Comunicación y publicidad	Documental: Gosetearen Hitzak	Ez du betetzen ebazpenaren 2 eta 3. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
7	Bozak	Documental: Colon Pasealekua: Acera de los reales y de la peseta	Ez du betetzen ebazpenaren 1. artikulua, ez dator bat denbora-tartearekin. Ez du betetzen ebazpenaren 2 eta 3. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
8	Asociación para la defensa de la Dignidad Humana	«Testimonios del silencio 2020»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 eta 3.2.artikuluak. Aldizkari bat da.
12	Asociación defensa Dignidad Humana	«Memoria y víctimas 1979 mirada histórica»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 y 3.2. artikulua. Urtero argitaratzen da, 1980koa eta 1981ekoa.
14	Foro Social Permanente	«Compromiso social construcción convivencia democrática»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 eta 12.2f. artikulua. Liburua amaitu gabe dago, B eta C atalak falta dira.
15	Juan Tomás Enciondo Batarrita	«La confrontación nuclear en Euskadi. Lemoiz: informe comisión defensa Costa Vasca no nuclear»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 eta 12.2f. artikulua. Liburua amaitu gabe dago.
16	Zunbeltz Matabuena Yarza	Cómic sobre «La guerra del 36 y el franquismo en Las Encartaciones»	Eskaera bikoiztua.
17	Asociación Memorialista Balmaseda 1937	Cómic sobre «La guerra del 36 y el franquismo en Las Encartaciones»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 eta 12.2f. artikulua. Liburua amaitu gabe dago.
18	Asociación Memorialista Balmaseda 1937	Documental: El antifranquismo de los 70 en Balmaseda	Ez du betetzen ebazpenaren 2 eta 3. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
20	Asociación Cultural Burdin Hesia Ugao/Miraballes	«El Fortín de Usila»	Ez du betetzen ebazpenaren 1 eta 12.2f. artikulua. Liburua amaitu gabe dago.

2021eko azaroaren 24a, asteazkena

## II. ERANSKINA

## ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
19	Olga Herrera Lucas	Documental «Casilda. El eco de otros pasos»	10.000,00
9	Elkar	«Francoren garaian kantuan»	4.273,21
6	Intxorta 1937	«2.000 del Winnipeg. Diario de a bordo»	4.404,42
4	Joseba Urretavizcaya	«Gladys del Estal»	4.000,00
21	Asociación Humanístico Cultural «La Ilusión»	Documental «Izkutatuta zegoen historia, la historia oculta»	8.566,80
10	Erein	«Intxaurrondo: intxaurraren hostopeko itzala»	5.000,00
11	Erein	«Los Sota: esplendor y venganza»	5.000,00
5	Hamaika Bide Elkartea	«Kulturaren bideak: euskal erbestea eta humanitateak»	2.800,00
13	Urko Garamendi Meabe	«Homenaje a los pueblos libres. Una gesta heroica»	5.000,00
3	Asociación ONG Pausu Media	Documental «Bortxazko lanak Behe Bidasoan»	2.640,00